

HIRUGARREN ZIKLOA. AHOZKO HIZKUNTZAREN PROGRAMAZIOA

HELBURUAK

- § Ikasleak euren sentimenduei buruz hitz egiteko gai izatea.
- § Gatazkei buruz modu koherente eta ulergarrian hitz egiteko gai izatea.
- § Asteburuetan gertatutakoari buruzko diskurtsoa egiteko gai izatea.
- § Gela barruan izaten diren hainbat egoeratan irakasleak nahiz beste ikasleek erabiltzen duten hizkuntza ulertzeko gai izatea.
- § Gela barruan ikasleekin nahiz irakasleekin hitz egiteko sortzen zaizkion egoeretan horiei egokituz, esapide zuzenak erabiliz eta solaskideak ulertzeko moduan, mintzatzeko gai izatea.
- § Batzarretan egokitzen zaizkien egitekoak (idazkaria, moderatzailea, idazkari laguntzailea) ongi betetzeko gai izatea.
- § Lantzen diren testuak ulertzeko eta sortzeko gai izatea.
- § Ahozko komunikazioa bideratzeko jarrerak eta ohiturak barneratzen joatea.
- § Gelaz kanpoko beste espazioetan (sarrera-irteeretan, jolastokian...) pertsona nagusiekin nahiz ikaskideekin, egoeraren arabera, euskara formala edo informala erabiltzeko ohitura hartzea.
- § Antzerkian ahoskera egokia eta inprobisaziorako estrategiak erabiltzeko gai izatea.
- § Bertzeen aitzinean edozein motatako testua modu koherente, ulergarri eta erakargarrian kontatzeko gai izatea (ipuinak txikiei, luzaketen ezaugarriak euren ikaskideei...)

TESTU MOTAK:

1. Bizipenak kontatu:

Asteleheneko lehendabiziko saioa Hizkuntza dugu. Bertan, solasari ordu erdi inguru eskaintzen diogu, bakoitzak banaka aste-hondarrari buruz nahi duena kontatzen die bertzei.

2. Debatea eta elkarrizketa:

Ikastetxeko LHko ikasle guztien arteko Batzarra. Hilean behin, beraiek nahi duten gauzei buruz hitz egiteko tarteak dute ikasleek. Gutxi gorabehera, ordubeteko iraupena izaten du. Bertan proposamenak, elkarrizketak, debateak, eztabaidak... sortzen dira, den-denak 6. mailako ikasleen gidaritzapean. Izan ere, batzarreko arduradunak 6. mailako ikasleak dira; moderatzaile, idazkari eta idazkari laguntzaile karguak aurretik izendatzen dira.

3. Elkarrizketa:

Tutoretza: astean behin saio bat tutoretza izaten dugu. Ikasleek tutoretzako gaiak (gatazkak, jakin-minak, nahiak, kexak, proposamenak...) solastatuz moldatu edota landuko ditugu.

4. Irrati hizkuntza:

Xorroxin irratia: aste batez Xorroxin irratia gure eskura izaten dugu eskolan. 3. ziklokoek 10:00etatik 10:50era tarte hartu dugu borts egunez. (Ikus eranskina)

5. Antzerkia:

Ikasturte hasieratik arratsalde oso bat eskaintzen diogu antzerkiari.

6. Testu instruktiboa:

Luzaketen deskribapena

.Irakasgaiak: Gorputz Heziketa eta Hizkuntza.

.Hizkuntzan idatziz landu ikasle bakoitzak luzaketa ariketa bat, irakaslearen laguntzaz, hagitx zaila egiten baitzaie. Ondoren, ikasleak etxean barneratu eta ahoz probak eginen ditu. Azkenik, GHko saioan ahoz deskribatu behar du luzaketa ariketa eta bertze guztiek errandakoa egin behar dute.

7. Azalpen testua:

Inguruneko edozein gairen ahozko azalpena bertzeen aitzinean.

.Irakasgaiak: Ingurunea eta Hizkuntza.

.Adibidea: “kirola, elikadura eta osasuna”. Ikasle bakoitzak kirol bat aukeratu eta lan bat egin ondoren, bertzeen aitzinean azaldu behar du ahoz.

Polita izan daiteke 2. edota 1. ziklokoak izatea entzuleak.

Atal hau lantzeko erabiliko dugu

“Azalpen testua”: 3. ziklorako sekuentzia didaktikoa (Ikus: Andra Mariako sekuentzia, eranskina)

8. Ipuin baten kontaketa.

Ikasle bakoitzak nahi duen ipuina (tradizionala, modernoa edo eurek asmatutakoa) aukeratu eta Haur Hezkuntzakoei kontatu.

9. Debatea:

Ikusi sekuentzia didaktikoa, eranskinean.

2005 – 2006. IKASTURTEKO XORROXIN IRRATIA

AZAROAREN 14tik 18ra

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Ortzeguna	Ortzirala
10:00 – 10:50	<p style="text-align: center;">3. zikloa</p> Agurra Albisteak Iragarkiak Txisteak Ipuinak Elkarrizketa: <p style="text-align: center;">Jon Abril</p> Lehiaketa Kanta eskaintza Amaiera	<p style="text-align: center;">3. zikloa</p> Agurra Albisteak Iragarkiak Txisteak Ipuinak Elkarrizketa: <p style="text-align: center;">Julen Errandonea</p> Lehiaketa Kanta eskaintza Amaiera	<p style="text-align: center;">3. zikloa</p> Agurra Albisteak Iragarkiak Txisteak Ipuinak Elkarrizketa: <p style="text-align: center;">Inaxio Errandonea</p> Lehiaketa Kanta eskaintza Amaiera	<p style="text-align: center;">3. zikloa</p> Agurra Albisteak Iragarkiak Txisteak Ipuinak Elkarrizketa: <p style="text-align: center;">Julian Jantzi</p> Lehiaketa Kanta eskaintza Amaiera	<p style="text-align: center;">3. zikloa</p> Agurra Albisteak Iragarkiak Txisteak Ipuinak Elkarrizketa: <p style="text-align: center;">Joxerra Lopez</p> Lehiaketa Kanta eskaintza Amaiera
11:30 – 13:00	<p style="text-align: center;">1. maila</p> Aurkezpena Xagu Kaxkarinaren antzezpena Txisteak Asmakizunak Kantak Musika Agurra	<p style="text-align: center;">2. maila</p> Aurkezpena Txisteak Elkarrizketa: Jesus Erreportaia: Azeria Elkarrizketa: Joseba Erreportaia: Zikoina Elkarrizketa: Mari Jose Erreportaia: Dordoka Kanta Asmakizunak Agurra	<p style="text-align: center;">3. maila</p> Aurkezpena Eguraldia Berriak Iragarkiak Elkarrizketa: <p style="text-align: center;">Genaro Zelaieta</p> Ipuinak Iragarkiak Asmakizunak Agurra	<p style="text-align: center;">4. maila:</p> Aurkezpena Kanta Albistegia Iragarkiak Elkarrizketa Erreportajea: Planetaren gaitzak Bertso lehiaketari buruzko informazioa Bertsoak abestu Asmakizunak Agurra	<p style="text-align: center;">Haur Hezkuntza</p> <p style="text-align: center;"><u>3 urte</u></p> Aurkezpena Kantak Agurra <p style="text-align: center;"><u>4 urte</u></p> Aurkezpena Kanta eta Olerkia Agurra <p style="text-align: center;"><u>5 urte</u></p> Aurkezpena Kanta eta Bertsoa Agurra

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: DEBATEA.

Testu generoa: ARGUDIOZKOA.

Adina: 3. ZIKLOA.

1.- GAIAREN AURKEZPENA:

A.- Gogoa piztu:

Debate batzuen bideo zatiak aurkeztu eta galdera batzuk egin solasaldia sortzeko eta eztabaidatzen ikasteko beharra ikusteko:

- Zer da?
- Zertarako egiten dira?
- Noizbait parte hartu duzu debate batean?

B.- Antolatu:

- Zer egingen dugu hamabostaldian?
- Proiektuaren xedea: DEBATE BAT.
- Gaiak pentsatzen hasi.
- Nola egingen dugu? Ariketak aipatu.
- Nola bukatuko dugu? Debatea egin, grabatu, autozuzendu, azken ekoizpena, balorazioa.

2.- TAILERRAK:

1. TAILERRA: **Gai bat nola aurkeztu.**

Gai zerrenda bat:

- Telebista ikustea ona ala txarra da?
- Telebistaren programazioa egokia al da?
- Futbola ala pilota?
- Garrantzitsuena irabaztea al da?
- Elikadura: litxarrerria bai edo ez.
- Animalien erabilera ikuskizunetan.
- Gaur egungo gizartean ongi erabili eta aprobetxatzen dugu papera?

Esamoldeak:

HASIERAN:	TARTEAN:	BUKAERAN:
§ Agurra § Dakizuenez § Agian jakingo duzue § Beti aditu izan dugu § Gaur egun aunitz kezkatzen gaituen gaia da... § Gure artean maiz sortzen den eztabaida... § Denon ahotan dagoen gai bati buruz ...	§ Horrexegatik... § Hori dela eta... § Beraz,...	§ Zuek duzue hitza. § Hasiera emanen diogu eztabaidari. § Beraz, solasean hasiko gara. § Bertzerik gabe, solasean hasiko gara.

Esamolde hauek guztiak kartel batean aurkeztuko ditugu.

Antolaketa:

1. Bakoitzari gai bat eman eta bakoitzak bere aurkezpena idatziz prestatuko du esamoldeak erabiliz. (Hasieran, tartean eta bukaeran)
2. Binaka batak besteari berea aurkeztu.
3. Gehienez sei bat aldiz prozesua errepikatu bikotea aldatuz.
4. Hausnarketa txiki bat egin eta ondoren bakoitzak talde handiari aurkeztu.

2. TAILERRA: **Intonazioa eta erritmoa.**

Ikasle guztiei hormirudi batean agertzen den ipuin baten testua banatuko zaie.

Ipuinaren eta ikasle kopuruaren arabera, taldeka edo banaka landu daiteke.

Bakoitzari egoera bat egokituko zaio:

- Ipotxen antzera
- Munstroen antzera
- Oso triste, ia-ia
negarrez
- Barrez lehertzen
- Motel-motel
- Hagitz ozenki
- Hagitz baxu
- Harriduraz
- Beldurtuak
- Beldurtu nahian
- Nekatuak
- Aspertuak
- ...

3. TAILERRA: **Gorputzarekin ere adierazi behar dugu.**

Bikoteka batak besteari zerbait kontatu:

- txistea
- bizipenak
- berri bat
- edozein egoera
- ...

Beti ere bi gauza kontuan harturik: begirada eta gorputz adierazpena.

Hiru bikoterekin gupila egin eta bukaeran hiru bikoteen aurrean egin.

4. TAILLERA: **Lokailuak landu.**

Lokailu zerrenda:

- | | |
|----------------------------------|--------------------------------------|
| - Nire ustez... | - Zuk lehen aipatu duzunari buruz... |
| - Ni ados nago zurekin baina ... | - Gure ildoara itzuliz... |
| - Ni ez nago ados... | - ...beraz... |
| - Iruditzen zait... | - ...ondorioz... |
| - Hala ere... | - ...uste baitut. |
| - Bat nator zurekin... | - ...pentsatzen baitut. |
| - Ez nator bat zurekin... | |

Kartak banatu, karta bakoitzean lokailu bat dagoelarik.

Binaka elkarrizketatxo bat presta dezatela eskatu. Ondoren, elkarrizketa besteen aurrean aurkeztuko dute.

5. TAILERRA: **Arreta landu.**

Filma, liburuen edota ipuinen izenburuen jokoak: hiru taldeak egin. Talde bakoitzak izenburu bat aukeratu behar du. Izenburuaren hitz bakoitzarekin istoriotxo bat asmatuko dute. Besteen lana izenburua asmatzea izanen da.

6. TAILERRA: **Arrazonamendua landu.**

Balizko egoerak eman, ikasleek irtenbideak bila ditzaten. Honetarako, egoerak txarteletan idatzi eta banatuko dizkiegu.

- Kanean diruz betetako kartera bat aukituko bazenu...
- Lotan zaudenean esnatu eta etxean bakarrik zaudela ohartuko bazina...
- Baloiarekin jolasean kristal bat apurtuko bazenu...

3.- **EKOIZPENA:**

Gaia aukeratu eta debate bat egingen dugu. Debate hau bideoan grabatuko dugu.

4.- **KONTROL ZERREDA:**

Kontuan hartu behar dugunarekin kontrol zerrenda prestatu eta bideoa aztertuz lehen ekoizpena baloratuko dugu.

- a.- Aurkezleak ongi aurkeztu du?
- b.- Intonazio eta erritmo egokiak erabili ditugu?
- d.- Gorputza behar den bezala erabili du?
- e.- Begirada ongi zuzendu dugu?
- f.- Lokailu egokiak erabili ditugu?
- g.- Ildoari eutsi diogu?
- h.- Ideiak ongi arrazoitu ditugu?

5.- **BUKAERA EKOIZPENA:**

Balorazioa egin ondoren, beharrezkoa bada, debatea errepikatuko dugu.

AZALPEN TESTUA: 3. ZIKLORAKO SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

	HELBURUAK	JARDUERAK	MATERIALA
EGOKITZE FASEA	<ul style="list-style-type: none"> • Lanaren helburuak azaldu: “Baliabide linguistiko, ez linguistiko eta hiztegi egokiak barneratu azalpen testu bat ahoz adierazteko” • Proiektua aurkeztu 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua bera eta helburuak jasotzen dituzten gardenkiak • Hormirudi bat landu behar ditugun atalekin.
Ikasleek ZER DAKITE?	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuan azaldu diren helburuen aurrezagutzak adierazi eta aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak prestatutako azalpen testu labur bat atalka banatu ikasleen artean. • Landu behar ditugun ahozko gaitasunak kontuan hartuz, bakoitzari tokatu zaion informazioa azaldu dezala (saio hau grabatu) • Grabaketa aztertu eta eztabaidatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testu laburra. • Bideo kamera • Grabatutakoa aztertzeke kontrol zerrenda.

	<ul style="list-style-type: none"> • Gai bat aurkezterakoan kontuan hartu behar diren gaitasunak identifikatu. - Planifikatu (konpetentzia ideatiboa) - Baliabide linguistiko, ez linguistiko eta semantikoak (konpetentzia pragmatikoa) 	1. SAIOA	
		<ul style="list-style-type: none"> • Eredu bat ikusi eta aztertu (grabatutakoa edo aurrez aurre egindako saioa) • Kontuan hartu behar diren gaitasunak aipatzen dituen kontrol zerrenda bete. • Behatutakoa eztabaidatu eta bateratu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eredua (grabazioa edo aurrez aurre egindakoa) • Kontrol zerrenda
	<ul style="list-style-type: none"> • Gai bat aurkezterakoan kontuan hartu behar diren gaitasunak landu 	2. SAIOA	
		<ul style="list-style-type: none"> • TALDE OSOA <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle batek irakasleak emandako azalpen testuaren gaia aurkeztu • Beste ikaskideek kontrol zerrenda jarraituz, aurkezpena aztertu. • TALDE TXIKIAK <ul style="list-style-type: none"> • Talde handian egindako gauza bera 	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testu laburrak • Kontrol zerrenda

2. TAILERRA Planifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testu bat antolatzen ikasi hartzailea kontuan hartuz eta gidoi baten egitura jarraituz: <ul style="list-style-type: none"> • Definizioa • Garapena 	1. SAIOA	
		<ul style="list-style-type: none"> • Era batean baino gehiagotan antolatuta dagoen testu bat, aztertu eta egokiena aukeratu. • Edukietan eta semantikoki zailtasun maila desberdinak dituen azalpen testu batean, hartzaile jakin batentzako atal egokienak aukeratu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testu labur bat era desberdinez antolatua • Atalak zailtasun maila desberdinak dituen azalpen testu bat.
2. TAILERRA Planifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testu baten atalak aurkeztu. 	2. SAIOA	
		<p>Azalpen testuak aurkeztu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak gidoi baten eredu bat egingo du • Ikasleen aurkezpenak (talde txikitan) • Aurkezpenak kontrol zerrendarekin aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testuen gidoiak • Kontrol zerrenda
3. TAILERRA Semantika	<ul style="list-style-type: none"> • Testuan ager daitezkeen kontzeptu ezezagunak/zailak ulertarazteko estrategiak landu hartzailea kontuan hartuz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Esaldi laburrak banatu eta ulertzeko zailak izan daitezkeen kontzeptuak azpimarratu eta hurrengo estrategiak erabili azaltzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Esanahia aurkitu • Beste era batez adieraz • Sinonimo-antonimoak • Irudiak • Konparaketak • Erlazioak... 	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz zerrenda • Erabili daitezkeen estrategia semantikoak adierazteko antolatzaile zerrenda

4. TAILERRA Sintaxia	<ul style="list-style-type: none"> Ideiak lotu eta erlazionatzeko unitate linguistikoak landu. 	<ul style="list-style-type: none"> Talde txikitan (4-5 kide) AZALPEN KATEATUAREN jokoa 	<ul style="list-style-type: none"> Testu antolatzaileen zerrenda.
5. TAILERRA	<ul style="list-style-type: none"> Ahotsaren ozentasuna, adierazpenaren, erritmoaren eta begiradaren garrantziaz jabetu ahozko azalpenak ematen direnean. 	<ul style="list-style-type: none"> Kontrol zerrenda bat jarraituz, bideoz grabatutako ahozko azalpenak aztertu. Azalpen horietan ozentasuna, erritmoa eta begirada hainbat modutan egonen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Bideo grabaketa. Kontrol zerrenda.